AIAKO UDALA

AIAN KIROL ZERBITZUAK EMATEKO KONTRATUA PROZEDURA IREKI BIDEZ ESLEITZEKO ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA EKONOMIKOEN, JURIDIKOEN ETA ADMINISTRATIBOEN AGIRIA.

KONTRATUARI BURUZ URUZ ORO HAR

1- ERREGIMEN JURIDIKOA

Kontratu honek zerbitzutarako administrazio kontratu izaera du eta baldintza agiri honek eta honekin batera doan gainerako dokumentazio teknikoak arautuko dute. Bertan zehazten ez den guztirako honako hauek arautuko dute kontratua:
- Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren
- Maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena.
- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onartutako Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra, 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuari aurka egiten ez dion guztian.
- Eta, hala beharko balitz, administrazio publikoetako kontratazioari aplikagarri zaizkion gainerako arauak.

Administrazio baldintza partikularren agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanik izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

2.- KONTRATUAREN HELBURUA.

Kontratu honen helburua da Aiako udal instalakuntzetan hainbat kirol zerbitzu ematea. Kontratuaren helburu diren Udalak eskatutako eta herritarrengandik sortu daitezkeen jarduera fisikoko zerbitzuak ematea:

a) Udalak eskatutakoak: pilates eta yoga

3.- KONTRATUAREN PREZIOA

Lehiaketarako aurrekontu tipoa zerbitzu ordu bakoitzagatik, jaitsiaz hobetu daitekeena, 40 euro/orduko + BEZ izango da.

Lehiatzaileek egindako proposamenetan eta kopuru zehatzean eta jakinean, eta baita kontratua esleitzen denean eskainitako prezioetan, eragin guztietarako, hauek sartuta daudela ulertuko da beti: zenbait kontzeptu grabatzen duten zerga, gastu, tasa eta mota guztietako arbitrioei dagozkien kuotak eta etekin industriala balio erantsiaren gaineko zergarik (BEZ) gabe.

Ondoren adierazten dira, gutxienez 14 ordu/asteko eta gehienez 20 ordu/asteko. Kurtsoko gutxieneko ordu kopurua 546ko izanik eta gehienezkoa 780 ordukoa. Kurtsoaren hasiera 2023ko irailaren 18an hasi eta 2024ko ekainaren 28an amaituko litzateke (eranskinean jasotzen den egutegiaren arabera). Bigarren urtera luzatuko balitzateke, Udalak zehaztuko luke kurtso hasiera eta bukaera.

Gutxieneko orduak bermatzen dira baina gehienezkoak ez. Sortu daitezkeen eskaeren arabera moldatuko da. Jakinerazi baita ere, kurtso bakoitzeko gutxieneko ikasle kopurua 4ko izango da.

4.- FINANTZIAZIOA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar besteko finantzazioa dago gaur egun ekitaldi honetako aurrekontuaren kargura. Halaber, aurrekontu gaietan eskumena duen organoak dagozkion kredituak gordeko ditu eragina izango duten hurrengo urteetako aurrekontuetan.

5.- KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuak urte bateko iraupena izango du kontratua formalizatzen denetik kontatzen hasita eta beste urte bat gehiago luzatu ahal izango da, betiere, alde biek aurrez berariaz horrela erabakitzen baldin badute epe bakoitza amaitu baino lehen.

6.- PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Esleipen prezioa kontratuak dirauen bitartean ez du prezioen berrazterketarik izango.

7.- ORDAINTZEKO ERA

Zerbitzua hilabetero ordainduko da hilabete horretan eskainitako ordu kopuruaren arabera.

Faktura onartu ondoren, eta faktura udal kontuhartzailetzaren bulegoan erregistratzen denetik kontatzen hasita, gehienez ere, 30 egun barru ordainduko du Udalak.

Faktura horietatik, eta aurrez kontratistari entzun ondoren, kontratazioaren gaia den zerbitzuak ez emateagatik edo osorik ez emateagatik edo izandako zigorrengatik kendu beharreko kopuruak kenduko dira.

8.- KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

8.1.- BETEBEHAR OROKORRAK.

a) Zerbitzuak ematea kontratuan ezarritako denboran. Zerbitzuak baldintza agiri honen arabera eta kontratua interpretatzeko Administrazioak enpresari emandako jarraibideen arabera eman beharko dira. Kontratua ezingo zaio hirugarren bati laga, ez osorik ez zati batean, Udalak berariaz horretarako baimenik eman gabe.

b) Kontratista behartuta dago gutxienez eta horrela balitz, zerbitzua ematen duten pertsonei indarrean dagoen Gipuzkoako Titularitate Publikoko Kirol-instalazioetarako Hitzarmen Kolektiboa aplikatzera, edo hitzarmen hori ordezkatuko duena, kontratuak indarrean dirauen bitartean.

c) Kontratua formalizatzea baldintza agiri honetan ezarritako epean.

d) Izan daitezkeen ezintasunak edo bateraezintasunak 15 eguneko epean jakinaraztea Udalari.

e) Arduradun-koordinatzaile bat izendatzea Udalarekin solaskide zuzena izateko.

f) Lan araudiko, Gizarte Segurantzako eta 31/1995 Legeko (Laneko Arriskuen Prebentzioko Legea) eta hori garatzen duten errege dekretuetako xedapenak betetzea eta baita zerga arlokoak ere, horiek ez betetzeagatik egon daitezkeen erantzukizunetatik erabat libre geldituz Udala.

g) Udalak ezarritako koordinazio bileretara joatea, koordinazio eta ebaluazio mekanismoak betez.

h) Zerbitzuak emateko beharrezko ordezkapenak egitea, beregain izango direlarik gastu guztiak. Kontratua amaitu ondoren, Udala ez da esleipendunak kontratatutako edo berarentzako lanean dabilen langileen kargu egingo.

i) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

j) Jarduerak udal kirol zerbitzuak ezarritako egun eta orduetan ematea edo aldaketarik balego adostuta izatea.

k) Erabili behar den materiala muntatu eta desmuntatzea, atera eta jasotzea, ikastaroak garaiz emateko. Horrekin batera kirol esparruak zabaltzeaz eta ixteaz ere arduratuko dira.

l) Zerbitzuari buruzko txostena aurkeztu kurtso amaieran.

8.2.- ZERBITZUEN BETEBEHARRAK.

a) Zerbitzua edo saioak udalak ezarritako ordu eta egunetan ematea edo elkar adostuta izatea. Kirol jarduera bakoitzean kobratu beharreko tarifak udalak ezarri eta kobratuko ditu.
b) Zerbitzurako beharrezko materiala Udalaren kargu izango da.
c) Erabilitako instalakuntza eta materialak era egokian zaindu eta mantentzea. Horrela ez balitz, konponketa edo/eta erostea zerbitzu emailearen kargura joango litzateke.

9.- ZERBITZUETAKO LANGILEEN TITULAZIOA.

Zerbitzua emango duten pertsonek eman beharreko zerbitzuan titulatuak edo ezagutza/esperientzia bermatu beharko dute, gutxienez hiru urteko aintzinatasunarekin.

10.- AIAKO UDALAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

1. Udalari dagokio kontratua ikuskatzea; eta kontratua behar bezala betetzeko jarraibideak eman ahal izango dizkio kontratistari kontratuaren baldintzetan oinarrituz eta kontuan izanik Alkateak izango dituela kontratua zuzentzeko eta ikuskatzeko ahalmenak.
   Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginean eta hori garatzen duen araudian ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz, Administrazioari honako hauek dagozkio: kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea.

2. Kontratuaren esleipendunari kobratzea dagozkion kopuruak ordaintzeari buruz, araudian ezarritako epeetan ordainduko ditu Udalak.

3. Aiako Udalak esleipendunaren esku jarriko ditu kirol jardueretarako lokalak.

4. Aiako Udalaren kontu izango dira esleipendunaren esku jarritako instalazioetako oinarrizko garbitasun eta argindar gastuak.

5. Aiako Udalari egotzitako arrazoiengatik –instalazioetan egin beharreko obrak edo beste edozein- zerbitzuak aldi baterako eten behar baldin badira, enpresa esleipendunak ez du inolako kalte-ordainik jasoko Udalaren aldetik. Gorabehera horien berri 7 eguneko aurrerapenarekin eman beharko da instalazioetan egin beharreko mantentze-lanengatik eta garbitasunagatik eteten bada zerbitzua (8tik 20 egunera urtean), eta 15 egunekoarekin, instalazioak hobetzeko obrak egin behar direla-eta zerbitzua aldi baterako eteteko beharra

dagoenean.

6. Udalak horrela eskatuta, zerbitzuak aldi baterako eten ahal izango dira, 24 ordu lehenago horren berri emanda, eta enpresa esleipendunak inolako kalte-ordainik jaso gabe.

12.- KONTRATATZEKO GAITASUNA.

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio prozedura honetan kontratatzeko debekuren bat ez badute, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 60. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta

Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariek kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordez bertako kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatzeko gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

13.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA

1.- Kontratazio prozesuan parte hartzeko proposamenak Udal Erregistroan aurkeztu ahal izango dira iragarkia Kontratzailearen profilean argitaratu eta hamabost lanegunetako epean, azken eguneko 14.00ak bitartean.

Proposamenak lehen adierazitako ordutegian aurkeztu beharko dira. Eskaintzak aurkezteko azken eguna larunbata edo jaieguna izanez gero, hurrengo lanegunera arte luzatuko da epea.

Postaz ere aurkeztu ahal izango dituzte proposamenak. Hala eginez gero, hauek kreditatu behar ditu interesatuak, dagokion gordekinarekin: noiz bidali zuen hura Postetxeko bulegoan eta egun berean Kontratazio Organoari adierazi behar dio fax, telex edo telegramaz, proposamena bidali duela. Baldintza biak bete gabe ez da onartuko proposamena, iragarkian ezarritako epetik kanpo aurkeztuz gero lizitazioa.

Hala ere, adierazitako egunetik 10 egun natural igaroz gero proposamena jaso barik, proposamena ez da inolaz ere onartuko.

Ezkutukoak izango dira proposamenak eta horiek aurkezteak esan nahi du baldintzarik gabe onartzen duela enpresariak baldintza agiri honetan eta baldintza teknikoen agirian aurreikusitako guztia.

2- Hiru gutun-azaletan aurkeztuko dira proposamenak, eta gutun-azal horiek ondoren zehaztuko diren dokumentuak izan beharko dituzte:

"A" gutun-azalaren azpititulua hauxe izango da: "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA". Hona hemen "A" gutun-azalean aurkeztu beharreko agiriak:

a) Parte-hartzailearen edo bere ordezkariaren nortasun agiri nazionalaren fotokopia. Gainera, beste pertsona edo erakunde baten izenean arituz gero, notario-ahalordea. Notarioaren-ahalordea Udalak askietsiko du gutun-azal honetako dokumentazioa kalifikatzerakoan.

b) Lehiatzailea pertsona juridikoa izanez gero, eratze- edo aldaketa-eskritura aurkeztuko du, behar bezala inskribaturik Merkataritza Erregistroan eta identifikazio fiskaleko zenbakian, inskripzioa derrigorrezkoa baldin badu, aplikatu behar zaion merkataritzako legeriaren arabera. Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskritura edo agiria aurkeztu beharko da jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribaturik egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lehiatzailearen jarduera zuzentzen duten arauak.
Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europako Erkidegokoak, dagokion erregistroko inskripzioaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, beren estatuko legeriak inskribatu beharra ezartzen baldin badie edo zinpeko aitortza edo ziurtagiria aurkeztu ezar daitezkeen Europako Erkidegoko xedapenen arabera.

Atzerriko gainontzeko enpresariek jarduteko gaitasuna egiaztatu beharko dute, delako estatu horretan Espainiak daukan ordezkaritza diplomatiko iraunkorrak edo enpresak helbidea duen kontsuletxeko bulegoak egindako txostenaren bidez.

c) Lehiatzaileak erantzukizunpeko berariazko aitorpena aurkeztu behar du, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 60. artikuluan kontratatzeko ezarritako debekuetatik bat bera ere ez duela agertzeko. Aitorpen horretan berariaz adieraziko du kitaturik dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, indarrean dauden xedapenek ezarritakoak; edo, hala egiten ez badu, egiaztagiriak aurkeztuko ditu, betebehar horiek beterik dituela frogatzeko.

d) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan, kontratuaren helburuari dagokion epigrafean alta emanda dagoela egiaztatzen duen egiaztagiria. Egiaztagiria aurtengo ekitaldikoa bada, alta aurkeztu beharko da; eta gainontzeko kasuetan, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren azken ordainagiria. Bi kasuetan zerga horri dagokion matrikulan baja eman ez duela egiaztatzen duen aitorpena aurkeztu beharko da.

e) Kaudimen teknikoa edo profesionala egiaztatzea. Ondorengo dokumenturen bat aurkeztuta egiaztatu beharko da:

- Azken hiru urteetan emandako zerbitzuen zerrenda. Egiaztagiri horietan, eman diren zerbitzuen zenbatekoak, egunak eta norentzat egin diren (kontratatzailea pribatua edo publikoa izan den) adieraziko dira; eta zerbitzu horietako garrantzitsuenak ondo burutu izanaren egiaztagiria ere aurkeztu beharko da.

f) Prozedura honetako jakinarazpenak egiteko helbide elektroniko bat, SPKLTBren 151.4 artikuluan jasotakoaren eta ondorioen arabera.

B "gutun azala" BALIO JUDIZIOAREN IRIZPIDEAK DITUEN PROPOSAMENA"

a) Zerbitzuaren antolaketari buruzko txostena eta eskaintza teknikoa.:

- 2023-2024 eta 2024-2025 kurtsoetarako jardueren proposamena

- Lan programa eta langileen antolakuntza

b) Zerbitzua hobetzeko proposamenak:
   - Udalak aurkeztutako jarduera programari egindako hobekuntzak.
   - Beste batzuk.

"C" gutun-azalak "PROPOSAMEN EKONOMIKOA" azpititulua izango du, eta ondorengo dokumentu hauek izan beharko ditu:

a) V eranskinaren arabera egindako proposamen ekonomikoa.

14.- KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio mahaia kide hauek osatuko dute:

- Mahaiburua: JON ANDER AZPIROZ OTEGUI .- Ordezkoa: MIRIAM SARASOLA EIZMENDI
- Mahaikideak: IGOR ITURAIN, ELI LASA
- Idazkaria: JOSE Mª AIERTZA ZINKUNEGI
-

15.- PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA ESLEIPENA

Proposamenak aurkezteko epea amaituta, ondorengo jarduerak egingo dira:

1. "A" GUTUN-AZALA IREKITZEA ETA BERTAKO DOKUMENTUAK TRATATZEA.

Mahaiak "A" gutun-azaleko dokumentazioa kalifikatuko du. Horretarako, lehiatzaileei beren gaitasun eta kaudimenari buruzko argibide eta agiri gehiago eskatu ahal izango dizkie, eta lehiatzaileek egutegiko bost eguneko epean eman beharko dizkiote, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legeko Erregelamendu Orokorraren 22. artikuluan xedatuta dagoenez. Mahaiak interesdunei ahoz eskatu behar dizkie argibide eta agiri osagarri horiek, eta gainera eskaera idatzia jarri behar du kontratazio organoaren iragarki oholean eta kontratatzailearen eskakizunetan. Era berean, lehiatzaileek aurkeztutako agirietan zuzentzeko moduko akatsak agertzen badira, Mahaiak ahoz eta iragarki bidez emango die horren berri lehiatzaileei; eta kasu honetan, eta aipatutako erregelamenduaren 81. artikuluan ezarritakoaren arabera, hiru egun balioduneko epea izango dute akatsak zuzentzeko.

Mahaiak, behin aurkeztutako dokumentazioa kalifikatu, eta hala badagokio, ikusitako akatsak edo ez- egiteak konpondu ondoren, baldintza agiri honen 14. baldintzan zehaztutako hautapen-irizpideekin bat egiten duten enpresak zeintzuk diren erabakiko du, eta berariaz adieraziko du zeintzuk diren lehiaketarako onartu diren enpresak, zeintzuk baztertutakoak eta bazterketaren arrazoiak.

2. "B" GUTUN-AZALA JENDAURREAN IREKITZEA.

Jendaurrean irekitzeko ekitaldia aurrez ezarritako egun eta orduan egingo da. Dokumentazio horretan egon daitezkeen akatsak edo hutsak zuzentzea beharrezko balitz, Mahaiak gehienez ere sei egun balioduneko epea emango du horiek zuzentzeko, SPKLa zati bat garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuko 27. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3. "C" GUTUN AZALAREN IREKIERA PUBLIKOA

B gutun azalaren irekieraren ondoren, "C" gutun azalaren irekiera egingo da, aurrez ezarritako egun eta orduan. Akats edo hutsak zuzentzeko beharra balitz, sei laneguneko epea emango zaio.

16. ESLEIPENA EGITEKO PROZEDURA. PROPOSAMENAK BALORATZEA.

Kontratua esleitzeko oinarri izango diren eskaintzen balorazio irizpideak eta horiei emandako haztapena honako hauek izango dira:

Atal bakoitza ondorengo irizpideen arabera baloratuko da:

1. Kirol jarduera zerbitzuetarako eskaintza ekonomikoak gehienez ere 20 punturekin baloratuko dira. Zerbitzuaren orduko prezioa merkatzeak 5 puntu emango ditu merketutako 1 euro bakoitzeko.
2. Zerbitzua hobetzeko proposamenak. Atal horretan gehienez ere 30 puntu lortu ahal izango dira. Kontuan izango dira Udalak aurkeztutako jarduera programari egindako hobekuntzak eta eskaintzarako berriak izan daitezkeen programak eta proposamenak. Atal honetan bere proiektuan sar ditzakeen kirol programak adieraziko dira eta baita interesgarritzat jo ditzakeen beste edozein atal ere, beti ere gehienezko ordu kopuruetara egokituta.

    - Kirol zerbitzuaren antolaketari buruzko txostena eta eskaintza teknikoa. Atal horretan gehienez ere 50 puntu lortu ahal izango dira. Eskaintza hori ahalik eta biztanle sektore guztiei zuzenduta egon beharko da, kontuan izanik bakoitzaren baldintzak jarduera fisikoa eta kirol jarduera egiteko.

Irizpide guztiak baloratu ondoren, aurkeztutako proposizioak onenetik txarrenera sailkatuko ditu Mahaiak eta kontratua esleitzeko proposamena egingo dio esleipena egin behar duen kontratazio organoari.

SPKLTBren 152. artikuluan aurreikusten denez, balio anormal edo neurriz gainerakoren bat edo gehiago antzemandakoan, eskaintza anormaltzat edo neurriz gainekotzat jo aurretik eskaintzaileari (edo eskaintzaileei, hala dagokienean) entzungo zaio, eta dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa jasoko da.

Kasu horretan, lehiatzaileak emandako arrazoiak eta eskatutako txostenak aintzat hartuta, Kontratazio Organoak proposamenik onuragarriena egiten duen eskaintzaileari egingo dio esleipena, betiere, lehiaketako helburua Administrazioak nahi bezala egiteko gaitasuna duela jotzen bada.

Aitzitik, kontratazio organoak uste badu eskaintza ezingo dela burutu balore anormalak edo neurriz gainezkoak sartu direlako, sailkapenetik baztertuko du eta sailkapen hurrenkeraren araberako proposamen ekonomiko onenaren aldeko esleipena erabakiko du.

Egindako guztia espedientean jasoko da, derrigorrez egin beharreko dagozkion aktetan.

17.- LEHENENGO SAILKATUARI ERREKERIMENDUA, HALA BADAGOKIO.

Aurrez adierazitako prozedura egin ondoren, sailkapenean lehenengo gelditu denari errekerimendua egingo zaio, errekerimendua jasotzen duen egunaren biharamunetik kontatzen hasita hamar

laneguneko epean honako hauek egin ditzan:

a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzeko agiriak aurkeztea edo kontratazio organoari baimena ematea berak zuzenean lortzeko egiaztapen horiek. Ez da beharrezkoa izango dokumentazio hori aurkeztea ziurtagiri horiek proposamenarekin batera aurkeztu baldin badira eta hiru hileko epean baldin badago.
b) Baldintza agiriko 13.e) baldintzan aurreikusitakoaren arabera, eta hala balitz, kontratua gauzatzeko atxikitzera konprometitutako baliabideak benetan dituela justifikatzeko dokumentazioa aurkeztea.
c) Parte hartzeko eskaerako gutun-azalean fotokopia soilak aurkeztu badira, dokumentu horien jatorrizkoak aurkeztea.

Jarritako epean ez badu zuzen betetzen errekerimendua, lehiatzaileak bere eskaintza bertan behera utzi duela ulertuko da, eta kasu horretan, eskaintzen sailkapena kontuan izanik, hurrengo lehiatzaileari eskatuko zaio dokumentazio bera aurkezteko.

18 .- ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK.

Kontratazio organoak kontratua proposamen onena egiten duen lehiatzaileari esleitzea erabakiko du. Esleipena HIRU HILABETEKO epean egingo da proposamenak irekitzeko egunaren biharamunetik kontatzen hasita, eta lehiatzaile guztiei jakinaraziko zaie eta Udaleko kontratugilearen eskakizunetan argitaratuko da.

Kontratuak administrazio-agiri gisa formalizatuz hartuko du indar juridikoa. Agiri hori zehaztasunez egokituko da lehiaketako baldintzei eta nahikoa titulu izango da edozein erregistro publikora jo ahal izateko Hala ere, kontratistak kontratua eskritura publiko bihurtzea eskatu ahal izango du, eta kasu horretan berak ordaindu beharko ditu gastuak.

Esleipenaren jakinarazpenean adierazitako epean, ezingo dena izan 15 egun baliodun baino handiagoa, esleipenduna Administrazio honetako bulegoetara etorri beharko da kontratua administrazio-agiri gisa formalizatzeko.

19.- KONTRATUAREN HASIERA

Kontratatutako lanak 2023ko irailaren 18ko astean hasi beharko dira, justifikatutako arrazoiengatik hasiera udalak berak berandutzearen kaltetan gabe.

Kontratua baldintza agiri honetako baldintzen eta baldintza teknikoen agirian ezarritakoaren arabera eta Eskoriatzako Udaleko zerbitzuko arduradunak horiek interpretatzeko emandako aginduen arabera bete beharko da.
Herri onurarako arrazoiak direla-eta, Udalak kontratua aldatu ahal izango du behar berriak sortzen badira edo ezusteko arrazoiengatik, kontratistak inolako kalte ordainik jasotzeko eskubiderik gabe. Ez dira aldaketatzat joko zerbitzua handitzea dakartzaten zerbitzu moten birbanaketak.

20.- KONTRATUAREN ALDAKETAK

Herri onurako arrazoiak direla-eta, Administrazioak kontratua aldatzea izango du SPKLTBren 107. artikuluan aurreikusitako egoeraren bat gertatutakoan, betiere, horrekin ez badira aldatzen lehiaketaren eta esleipenaren oinarrizko baldintzak.

Aipatutako balizko aldaketak derrigorrezkoak izango dira kontratistarentzat.

21.- ARAUTUTAKOA EZ BETETZEA

Aiako Udalak zigorrak ezarri ahal izango dizkio esleipendunari, aurrez kontraesaneko espedientea

egin ondoren, bere betebeharrak betetzerakoan arau-hauste arinak, larriak edo oso larriak egiten baldin baditu.

- **Arau-hauste arinak honako hauek dira:**

  Administrazioari ez jakinaraztea, denboraz eta formaz, hasiera batean esleipendunak emandako datu formaletan izandako aldaketak.

- **Arau-hauste larriak dira honako hauek:**

  Administrazioaren ikuskatze lanak eragoztea edo

  oztopatzea.

  Ezarritako neurri zuzentzaileak aplikatzeko Administrazioak egindako errekerimenduei kasurik

  ez egitea.

  3 arau-hauste arin edo gehiago pilatzea.

- **Lege-hauste oso larriak honako hauek dira:**

  Zentroko zerbitzuen erabiltzaileen duintasuna urratzea zerbitzuak jasotzeko edo erabiltzeko baldintza umiliagarriak ezarriz.

  Erabiltzaileen segurtasunerako edo osasunerako arrisku edo kalte larria ekar dezakeen edozein ekintza edo ez egite.

  Prestazio osagarriak azpikontratatzea Udalaren

  baimenik gabe. 3 arau-larri edo gehiago pilatzea.

  Arau-hauste arinak 150 euro arteko isunekin zigortuko dira.

  Arau-hauste larriak 151 euro eta 300 euro arteko isunekin

  zigortuko dira. Arau-hauste oso larriak 301 euro eta 600 euro

  arteko isunekin zigortuko dira.

  Arau-haustea egiaztatuta, eta kontratistari entzunaldia eskaini ondoren, kontratazio organoak dagokion zigorra ezarriko du, baldintza honetan ezarritakoaren arabera. Enpresak berriz hausten badu araua, zerbitzu teknikoek kontratua suntsitzea proposatu dezakete, esleipendunak inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.

22.- UDALAREN ESKUMENAK

Udalari dagokio kontratua interpretatzea, kontratua betetzearen inguruan sor litezkeen zalantzak argitzea, arrazoi publikoengatik aldatzea eta, kontratua suntsitzeko erabakia hartzea eta kontratuaren ondorioak finkatzea, betiere, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legean ezarritako mugen barruan eta bertan ezarritako baldintza eta ondorioak kontuan izanik.

Zentzu horretan hartutako erabakiak administrazio bidea agortuko dute eta exekutiboak izango dira berehala.

Era berean, Udalari dagokio hitzartutako zerbitzuak nola ematen diren kontrolatzea eta horien jarraipena egitea. Horretarako, Udalak edozein momentutan eskatu diezaioke enpresa esleipendunari kontratuaren exekuzioari buruzko txostenak aurkezteko.

Udalak beretzat gordetzen du esleipendunari zerbitzua ematen duen edozein pertsona aldatzeko eskatzeko ahalmena. Aldaketa eskaera hori behar bezala oinarritutako arrazoiengatik izan beharko da.

AIAKO UDALA

23.- AZPIKONTRATAZIOA

Esleipendunak ezingo du hirugarrenekin hitzartu zerbitzuaren prestazio osagarriak ematea ez bada Udalak espreski baimenduta, eta hala balitz, hirugarrenekin azpikontratatutako prestazio partzialek ez dezatela gainditu esleipen prezioaren % 50a.

Azpikontratatutako enpresak esleipendunaren aurrean behartuta egongo dira bakarrik, eta beraz, Administrazioaren aurrean esleipendunak izango du administrazio baldintza partikularren eta kontratuan zehaztutakoaren arabera kontratua betetzeko erantzukizun osoa.

24.- JURISDIKZIO ESKUDUNA.

Kontratu honetatik sortutako auziak, administrazioarekiko-auzien jurisdikziopean geratuko dira; hala ere, aldeek akordio bat egin dezakete bitartekaritza onartzeko, indarrean dagoen legeriaren arabera.

25.- DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratazio honen bitartez datu pertsonalak eskuratzen badira, kontratistak SPKLTBren Hogeita Seigarren Xedapen Gehigarrian adierazitakoak bete beharko ditu, Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hori garatzen duten arauetan xedatutakoak biltzen baitira bertan.

26.- KONTRATUA BERTAN BEHERA UZTEKO ARRAZOIAK

Kontratua suntsitzeko arrazoiak Herri Administrazioen Kontratuen Legearen 223. eta 308. artikuluetan ezarritakoak izango dira

Aian, 2023ko uztailaren 20an. Alkatea.- Jon Ander Azpiroz Otegui.

AIAKO UDALA

AIAKO UDALA

PROPOSAMEN EREDUAK

Izena: .....

Helbidea:.....

Nortasun Agiria: .....

Ordezkaritzan eginez gero, ordezkatuaren datuak:
Izena .....
Helbide soziala .....
IFK: .....

ADIERAZPENA

1.- Lehiaketa ireki bide Aiako kirol zerbitzuak kontratatzeko baldintza ekonomiko-administratiboen agiria eta preskripzio teknikoen agiria ezagutu eta guztiz onartzen ditut.

2.- Nire erantzukizunpean aitortzen dut lehiatzaileak legez ahalmena duela, eta behar adina baliabide, kontratuaren gaia betetzeko, eta ez dagoela sartuta indarrean dagoen legediak adierazten dituen bateraezintasun edo debekuetako batean berean ere.

3.- Esleipendun izanez gero, onartutako baldintza agirietan jasotako baldintza eta eskakizunek ezarritakoari jarraituz emango dudala zerbitzua.

4.- Esandakoaren arabera, lehenengo puntuan aipatutako kontratuaren helburu diren prestazioak ematera konprometitzen naizela prezio honetan, BEZ kanpo .....

.....

(LETRAZ ETA NUMEROZ JARRI ETA JARDUEREN ARABERA BEREIZITA).

Lekua, eguna eta sinadura. LEHIATZAILEA.